

GURE EKOSISTEMAKO IRUDIAREN AZALPENA

Taldea: 1. Taldea

Izen-abizenak: Izadi Diego, Aitzol Aspiazu, Idoia Arana eta Unai Lauzirika.

Izenburua: Igelaren bizitza zikloa.

EKOSISTEMAK gaia adierazteko egingo dugun irudiaren ikusizko baliabideak txosten honetan azalduko ditugu. Azalpen honen bitartez irudi proiektuaren planifikazioa egingo dugu. Showbieren bitartez bidaliko dugun txosten hau proiektuaren ebaluaziorako errubrikaren bigarren atalean baloratuko da.

1. **Irudiaren mezua eta efektuak.** Zer adierazi nahi dugu irudiaren bitartez? Zeintzuk dira irudiak adierazten dituen efektuak?

Igelaren bizitza zikloa azaldu nahi dugu; zelan jaiotzen, hazten, elikatu eta bere inguruko ekosistema ere erakutsi nahi dugu. Irudian fauna eta flora irudien bitartez azalduko ditugu. Igelaren elikasarea ere ikusiko da irudian, igela intsektuak jaten. Efektuei dagokienez, gure irudian igelak, arrainak, dortokak eta euliak **mugimenduan** ikusiko dira, **norabide zirkularra edo birakakoa** adieraziz. **Kontrastea** ere ikusiko da irudiaren sakonean. Horrez aparte, kolore argiekin marraztuko dugu **alaitasuna eta bizitasuna** adierazteko.

2. **Ikus-elementuak.** Irudian erabiliko ditugun lerro eta koloreak azalduko ditugu. Azalpena idazteko **ZER, NOLA eta ZERTARAKO** egiturari jarraituko diogu, erabilitako ikus-elementuak eta hauen ezaugarriak irudiaren mezua eta efektuarekin harremantzeko.

- Lerroak (lerro motak eta hauen ezaugarriak):

Lerro kurbatuak jarriko ditugu **mugimendua** adierazteko, kasu honetan, igelan, arrainetan eta uretako landareetan erabiliko ditugu. Zabalera desberdinetako lerroak jarriko ditugu hori lortzeko. Uretako landareetan adibidez, lerro intentsoagoak jarriko ditugu sustriak nabaritzeko. Igeletan ere berdina jokatuko dugu, era horretan, lerroak garrantzia hartuko du eta gehiago ikusiko da.

- Koloreak (kolore motak eta hauen ezaugarriak):

Kolore epelak jarriko ditugu ekosistemaren irudian. **Kontrastea** ere ikusiko da irudiaren sakonean. Urmaelako ura kolore urdinez margotuko dugu eta inguratzen duen belarra kolore berdez. Ekosistemako beste animaliak ere, kolore argiekin margotuko ditugu **alaitasuna eta bizitasuna** adierazteko.

3. **Irudiaren konposaketa.** Irudian erabiliko dugun konposaketa azalduko dugu. Azalpena idazteko **ZER, NOLA eta ZERTARAKO** egiturari jarraituko diogu, erabilitako konposaketa eta hauen ezaugarriak irudiaren mezua eta efektuarekin harremantzeko.

- Konposaketa (simetria, asimetria, erritmoa... eta honen ezaugarriak):

Gure irudiak horizontalean ipiniko ditugu lauki zuzen horizontal handi bat sortzen. Gure irudiak igelaren zikloa adieraziko duenez, zirkulu bat sortuko du, **norabide zirkularra edo birakakoa** adieraziz. Irudi bakoitzean igelaren bizitzaren zikloko zati desberdinak agertuko dira; nola jaiotze, hazia eta elikatzen den azaltzeko.

